

**Zure diruarekin ez:  
izan zaitez gastu militarrekiko eragozle  
fiskal**



***Zure zergak gerratean gastatzerik ez baduzu nahi, egin zaitez  
eragozle fiskal***

**2006ko Kanpaina**

Gipuzkoako Eragozpen Fiskaleko taldea (KEM-MOC)  
Posta kutxatila 1330-20080 Donostia  
Tf 666619586 e-maila: [kemdon@euskalnet.net](mailto:kemdon@euskalnet.net)  
Web orrialdea: <http://www.nodo50.org/kemdon/>

### **Zer da eragozpen fiskala?**

Idazki bat ematea eragozle fiskala zarela esanez, gastu militarrei eragozlea, eta, ondorioz, ordaintzen dituzun zergen zati proportzionala gastu militarrekin zerikusirik ez duten gastuetara joan dadila eskatuz.

### **Zertarako balio du eragozpen fiskala egiteak?**

Estatuari presioa egiteko, ejertzittoa ordaindu ez dezan, armagintzari dirulaguntzarik eman ez diezaion. Eragozpen fiskala egiten dugu, ez dugulako militarismoarekin kolaboratu nahi, eta publikoki gure desadostasuna agertu nahi dugulako.

### **Zeinek egin dezake eragozpen fiskala?**

Estatuari zergak ordaintzen dizkion edonork, hau da, EDOZEIN PERTSONAK, denok ordaintzen baititugu zergak, bai era zuzenean, bai zeharka (edozein ordainketa egiten dugunean: zerbait erostean adibidez). Beraz, ez da zerga aitorten egin behar eragozle fiskala zarela adierazteko.

### **Noiz egin daiteke eragozpen fiskala?**

Edozein momentutan. Dena dela, talde antimilitaristok urtero bultzatzen dugu eragozpen fiskaleko kanpaina bat errenta aitortpena egiteko garaian, momenturik egokiena delakoan.

### **Zenbatekoa da gastu militarra?**

2006. urtean, Estatuko Aurrekontuetan ikus daitekeenez, Espainiako gastu militarra gastu publikoaren %12 inguru izango da.

2006. urtean ikerketa militarra egiteko diru-aurrekontua %27 igo da, eta ikerketa zientifikoan gastatzen den diru publikoaren %26 da. Ikerketa militarra egiten osasun-ikerketan halako 5 gastatzen da, nekazaritza-ikerketan halako 22 eta arrantza-ikerketan halako 31. Diru horrekin ikerketarako 4.000 lan-postu berri sor litezke, I+G (Ikerketa + Garapena) zibila garatuko luketenak.

### **Nola egin eragozpen fiskala?**

Bi modu daude, biak ala biak baliagarriak, baina konpromiso maila desberdinarekin. Ondoren, eragozpen fiskala egiteko bi moduak azaltzen dira. Bakoitzak erabakiko du zein modutara egin.

## ERAGOZPEN FISKALA EGITEKO LEHEN MODUA

Dokumentu honetako 4. orrialdean datorren adierazpena betetzea baino ez duzu egin behar. Ondoren, moztu, eta

- Hurbilen dagoen Ogasun Ordezkaritzan utzi edo
- Postaz hurrengo helbidera bidali:
  - Gipuzkoako Ogasuneko Foru Diputatu jauna
  - Gipuzkoako Foru Ogasuna
  - Errotaburu pasealekua 2. Donostia
- edo
- Zure errenta aitorpenarekin batera eman

## ERAGOZPEN FISKALA EGITEKO BIGARREN MODUA

Eragozpen fiskala norberaren Errenta Aitorpenean txertatuko da. Txertatze-modua honakoa da: eragozpen fiskala kenkari berezi baten bidez txertatzen da. Kenkari berezi hori guk, aurrez, proiektu jakin bati egindako diru-ordainketa bat izango da. Modu horretara, guk ordaintzen ditugun zergen zati bat militarismoarekin loturarik ez duen gauzetara bideratuko dugu.

Jarraitu beharreko pausoak:

1. Gustokoa duzun proiektuaren kontu-korrontean sartu eragotziko duzun diru-kopurua, eta ordainagiria gorde.

Sartuko den diru-kopurua norberak erabakitzen du. Guk 60 eurotako diru-kopurua sartzea proposatzen dizuegu.

Norberak erabakitzen du diru-kopuru hori zein proiektutara bideratu. Elkarre bat, gizarte-mugimendu bat, gobernuz kanpoko erakunde bat...izan daiteke. Eragozpen Fiskaleko taldeetatik diru-kopuru hori ondoko proiektu honi ematea proposatzen dizuegu: "Kolonbiako Bake Komunitateak". Proiektu honek Recorre sareko Kolonbiako komunitateak lagundu nahi ditu. Kolonia bezalako herrialde batean, gerratearen aurka eta gatazkak modu baketsu batean konpontzearen alde dihardute. (Informazio gehiago: <http://www.cdpsanjose.org>). Proiektu honi dirua eman nahi dionak Caja Laboral-Euskadiko Kutxako ondorengo kontuan egin dezake 3035 0038 90 0381121763.

2. Egin Errenta Aitorpena, eragotzitako kopurua kenkariaren atalean sartuz. Dagokion ordainagiria Errenta Aitorpeneko beste paperekin ipini.

3. Dokumentu honetako 5. orrialdean datorren adierazpena bete, moztu, eta Errenta Aitorpeneko beste agirietara gehitu.

## ERAGOZPEN FISKALAREN ADIERAZPENA

GIPUZKOAKO OGASUNEKO FORU DIPUTATU JAUN/ANDEREARI

Izena \_\_\_\_\_ NAN \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

Udalerrria \_\_\_\_\_ PK \_\_\_\_\_

AZALTZEN dut:

- Gerra gizateriaren kontrako krimena da. Beraz, gerrak prestatu eta egiten dituztenak kriminalak dira.
- 2006rako Estatu Aurrekontuetan ikus daiteken bezala, espainiar estatuko gastu militarra gastu publikoaren %12 izango da.
- Kontzientzia arrazoiek ez didate estatuko gastu militarrek ordaintzera laguntzen uzten, horrek kriminal egiten bainau.
- Nire eragozle fiskal izaera (gastu militarrekiko) kontuan hartu behar dela, nik ogasun publikoari ordaindutako zergak (bai era zuzenean, bai zeharkakoan ordaindutakoak ere) gastatzeko garaian.

Beraz, zera ESKATZEN dut:

- 1.Nire eragozpen fiskala kontuan izan dezazuen eta herrialde historiko honek estatuko administrazio zentralari ordaintzen dion kupoan kontuan hartua izan dadin, eta, beraz, kendua izan dadin:
  - 2005ean ordaindu ditudan zerga zuzenetatik % 12.
  - Estatuari ordainduko zaizkion zeharkako zergetatik datorren diru kopuruaren %12, Gipuzkoako populazioaren artean zatitu eta gero.
- 2.Kendutako diru hori militar gauzekin harremanik ez duen beste edozein lekutan jar dadila.

\_\_\_\_\_(e)n, 2006-ko \_\_\_\_\_-ren \_\_\_\_\_-a

Jn/And.-k sinatua \_\_\_\_\_

## ERAGOZPEN FISKALAREN ADIERAZPENA

GIPUZKOAKO OGASUN SAILEKO FORU ALDUN JAUN/ANDEREARI

Izena \_\_\_\_\_ NAN \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

Udalerrria \_\_\_\_\_ PK \_\_\_\_\_

AZALTZEN dut:

/ / datarekin Pertsona Fisikoen Errentari buruzko Zergaren deklarazioa aurkeztu dut.

Kontzientzia arrazoiek ez didate utzi gastu militarretara dirua bideratzen.

Eta arrazoi horiengatik, hurrengoa erabaki dut: PFEZen \_\_\_\_\_ €-tako kenketa egitea, "gastu militarrei kontzientzi eragozpena" kontzeptu gisa.

Beraz, ESKATZEN dut:

1.Nire eragozpen fiskala kontuan izan dezazuen eta herrialde historiko honek Estatuko Administrazio Zentralari ordaintzen dion kupoan kontuan hartua izan dadin, gai militarra Gobernu Zentralaren kompetentzia hutsa baita. Hau guztia egiterakoan, kendutako kopurua gastu militarrei dagokiela argi eta garbi azal dadila nahiko nuke.

\_\_\_\_\_(e)n, 2006-ko \_\_\_\_\_-ren \_\_\_\_-a

Jn/And.-k sinatua \_\_\_\_\_

## **Eragozle fiskalentzako inkesta.**

Behin eragozpen fiskala eginda, garrantzitsua da inkesta bidaltzea, eragozpen fiskala zenbatek egin duten jakiteko era bakarra baita (Ogasun Sailak ez du datu hori ematen). Zenbateko horrek ekimen honen indarra adieraziko du.

Ondoren datorren inkesta hona bidal dezakezu: Gipuzkoako Eragozpen Fiskaleko Taldea. Posta Kutxatila 1330-20080 Donostia. Datu horiek telefonoz ere jakinarazi ditzakezu (Tf 666619586), nahiz SMS bidez, nahiz e-mail bidez [kemdon@euskalnet.net](mailto:kemdon@euskalnet.net), nahiz web orrialdearen bidez <http://www.nodo50.org/kemdon/>

*Zenbat pertsonak egin duzue eragozpen fiskala?*

*Proiekturen batean diru-sarrerarik egin baduzue, zenbat diru eragotzi duzue eta zein proiektutara bideratu duzue?*

*Azalpenak eta iradokizunak. Guretzako interesgarria da jakitea ea Ogasunak erantzunen bat eman dizueten, zalantzarik izan duzuen...*

Eragozpen fiskalari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, bete hurrengoak:

*Izen abizenak:*

*Posta helbidea:*

### ***Laguntza behar izanez gero:***

Gipuzkoako Eragozpen Fiskaleko taldea (KEM-MOC)  
Posta kutxatila 1330-20080 Donostia  
Tf 666619586 [kemdon@euskalnet.net](mailto:kemdon@euskalnet.net)  
<http://www.nodo50.org/kemdon/>